

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALEKO ELEMENTU BEREZIEN DOIKUNTZA ETA AKABERAK OBRAN	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF1113		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturala eraikinetan jartzea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementu bereziak jartzea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko elementu berezien lanak eta zuinketa prestatzea	Iraupena	30
	Harri naturaleko elementu bereziak jartzea obran		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1376_2 HARRI NATURALEKO ELEMENTU BEREZIAK JARTZEA gaitasun-ataleko LB5 eta LB7 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: elementu bereziak neurritara ebakitzeko, mekanizatzeo eta konformatzeo eragiketak aplikatzea, makina, erreminta eta lanabes egokiak erabiliz eta eraginez, espezifikazio teknikoekin eta/edo obrako zuinketarekin lotuz.

E1.1 Elementu bereziak neurritara ebakitzeko, mekanizatzeo eta konformatzeo eragiketak (zulaketa, artekaketa, fresaketa, leunketa, apar-harriz igurztea, hareaz igurztea, akabatzea, zahartzea, hustea eta beste batzuk) azaltzea, prozesuaren faseak horiek egiteko beharrezko eragiketa eta baliabideekin lotuz.

E1.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Egin beharrezko eragiketen arabera erabili behar diren makina edo erremintekin jardutea, makina bakoitzaren berezko segurtasun-neurriak betez.
- Mekanizazioarako lanabes espezifikoak (barautsak, fresak, diskoak, hariak, granaila, esku-erremintak) aukeratu eta erabiltzea, oinarriko materialen eta egin beharrezko lanen arabera.
- Trazadura egitea txantiloien, neurketa- eta egiaztapen-lanabesen, laserraren eta beste batzuen bitartez, egikaritzeko planoak eta krokisak interpretatuz.
- Ahokadura mota desberdinak (barnekoak, kanpokoak, goikoak, behekoak eta mistoak) egiaztatzea eta egitea.
- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenari buruzko arauak aplikatzea, hautsaren, zarataren, hondakinen eta lokatzen emisioak zuzentzeko neurriari arreta berezia eskainiz.

E1.3 Pieza trinkoetan doikuntzak, mihiztadurak eta noranzko-aldaketak egiteko neurrirako ebaketari buruz behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean arku kapaz sendoa identifikatzea, hori dimentsionatuz.

A2: Elementu berezien akabatze-lanak egiteko beharrezko prozedurak aplikatzea eta akabera funtzionalak eta estetikoak bereiztea, laneko argibideen arabera.

E1.2.1 Obran egin beharrezko elementu berezien akabera-eragiketak identifikatzea (juntura-berdintzea, leuntzea, akabatzea, garbitzea, estankotasuna, tindatzea, patinatzea, gainazaleko tratamenduak), erabili beharrezko ekipamendu, erreminta eta materialei lotuz, baita kasu bakoitzean kontuan izan behar diren laneko arriskuak prebenitzeko arauak ere.

E1.2.2 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, dokumentazio teknikoa eta/edo lan-argibideak abiapuntutzat hartuz, ezarritako akabatze-lanak egitea, eskatzen den kalitate-mailarekin:

- Akabera-produktuak espezifikazio teknikoetan adierazitako dosifikazioarekin eta denborekin aplikatzea.
- Elementu berezi bakoitzean beharrezko segurtasun-neurriak aplikatzea, egikaritzapen-proiektuari doituta.
- Proiektuan ezarritako akabera-kalitatea zehaztea kontrol-erreminta eta -lanabesen bitartez.

Edukiak:

1. Harri naturaleko elementu bereziak doitzea obran.

- Arku kapaz sendoa. Aukeraketa.
- Pieza-trazadura.
- Txantiloak erabiltzea.
- Neurritara egindako ebaketa.
- Mekanizatuak; zulatzea, moztea, fresatzea, leuntzea, apar-harriz igurztea, hareaz igurztea, zahartzea, hustea.
- Ekipamenduak eta erremintak: Erabilera:
 - Ebakigailuak.

- Leungailuak.
- Hareaz igurzteko makinak.
- Alakatzeko makinak.
- Ertz-leungailuak.
- Disko-makinak.
- Zulagailuak.
- Mekanizazio-lanabesak: aukeratzea, jartzea, egiaztapenak, ordezteak.
- Elementu berezien neurriak eta ezaugarriak egiaztatzea.
- Segurtasun-neurriak ebaketa eta mekanizazioan.
- Norbera babesteko ekipoak.
- Babes kolektiboko baliabideak.
- Ingurumena babesteko neurriak: zarata, hautsa, hondakinak.

2. Harri naturaleko elementu berezien akabera obran.

- Akaberak.
- Akaberen kalitatea.
- Junturen tratamendua. Zigilatze materialak.
- Gainazalen tratamendua:
 - Lizunaren aurkako produktu kimikoak, grafitien aurkakoak.
 - Tindatzea, patinatzea.
 - Leuntzea, testurak.
- Hezetasunaren aurkako babesak: oztopoak azaleko abiagune eta akaberetan.
- Elementu osagarriak jartzea.
- Garbitzeko eragiketak eta produktuak.
- Akaberaren kalitatea:
 - Kalitate-kontrola: erremintak.
 - Akats eta irregulartasun nagusiak.
 - Kausak eta egon daitezkeen konponbideak.
 - Kalitate-prozesuak eta -baldintzak.
- Segurtasun-neurriak.
- Hondakinen kudeaketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturala eraikinetan jartzea